



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko abenduaren 1a

143. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Tuterako Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Tuterako Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Tuterako Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Tuterako Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- |  |  |
|--|--|
| <p><b>I.</b> Sarrera (3. or.).</p> <p><b>II.</b> 2015eko kontu orokorrari buruzko iritzia (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1. Auditoriaren finantzarioko iritzia (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (7. or.).</p> <p><b>III.</b> Udalaren 2015eko kontu orokorraren laburpena (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.1. 2015eko aurrekontu bateratuaren betezearen egoera-orria (8. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">III.2. 2015eko aurrekontu-emaizta bateratua (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.3. Diruzaintza-gerakina 2015eko abenduaren 31n (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.4. 2015eko abenduaren 31ko balantze-egoera bateratua (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2015ean (11. or.).</p> <p><b>IV.</b> Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2015eko abenduaren 31n (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako aholkuak betetzea (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.4. Alderdi orokorrak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.5. Langileak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.6. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.7. Finantza-zama (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.8. Transferentzien ondoriozko gastuak (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.9. Inbertsioak (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.10. Aurrekontuko diru-sarrerak (22. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.11. Hirigintza (23. or.).</p> <p>Eranskina: Udalaren oroitidazkia.</p> <p>(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:<br/><a href="http://www.cfnavarra.es/camara.comptos">www.cfnavarra.es/camara.comptos</a>).</p> |
|--|--|

## I. SARRERA


Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako jarduketa-programari jarraituz, Tuterako Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.

Kontu orokorren finantza-auditoriarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Tuterako Udalari 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua funtsean honakoek osatzen dute: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarririk arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Tuterako udalerririk 215 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 35.338 biztanle dauzka 2015eko urtarrilaren 1ean.

Udalaren eta haren menpeko erakundearen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2015eko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Administrazioaren Sektor Publikoa, Udalak berak eta bere erakunde autonomoak, Uren Batzarrak, osatua.

2015ean Udalak ez dio inolako ekarpenik egin Uren Batzarrari.

- Enpresen Sektor Publikoa. Udalak Castel-Ruiz enpresa-entitate publikoaren jabetza osoa dauka. Entitate horrek zortzi langile dauzka 2015eko abenduaren 31n.

Udalak, 2015ean, 1.090.000 euro eman dizkio entitate horri.

2015ean, bateratuta aurkeztu ziren Udalaren eta haren erakunde autonomoaren eta enpresa-entitatearen kontuak. Bateratze horren aurrekontu-datu nagusiak honako taula honetan azaltzen dira:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak (2015)	Aitortutako eskubideak (2015)	Langileak, 2015-12-31n
Udala	42.093.219	35.547.818	299
Uren Batzarra	2.824.697	3.204.064	23
Castel-Ruiz Enpresa-entitate Publikoa	1.400.574	1.445.011	9
-Bateratzearen doitzeak	-1.090.000	-1.090.000	-
<b>Guztira</b>	<b>45.228.490</b>	<b>39.106.893</b>	<b>331</b>

• Fundazioen Sektore Publikoa. Hurrengo taulan aipatzen diren entitateek osatzen dute, eta aipatzen diren datu ekonomikoak izan dituzte 2015ean (emaitzen kontua):

Fundazio publikoak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak 2015-12-31n
Informazioaren Gizarterako Dédalo Fundazioa	170.096	186.818	-16.722	5
María Forcada Fundazioa	37.683	128.346*	-90.663	-

\*Kopuru horretatik 88.072 euro amortizazioei dagozkie.

Udalak 2015ean 115.000 euro eman dizkio Dédalo Fundazioari eta 15.000 euro, berriz, María Forcada Fundazioari. Kopuru horiek haien diru-sarreraren ehuneko 68 eta 40 egiten dute, hurrenez hurren.

Udalak, gainera, patroi gisa parte hartzen du honako fundazio hauetan: Miguel Eza, Real Casa de Misericordia eta Manuel de Castel-Ruiz.

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

• Erriberako Mankomunitatea, zeina hondakinak biltzeko zerbitzuaz, etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko bulegoaz eta lazareto zerbitzuaz arduratzen baita.

- UHUNen Tuterako Ikastetxe Elkartuaren Partzuergoa.
- Tarazonicaren Bide Berdearen Partzuergoa.
- Nafarroako Erribera garatzeko estrategietarako partzuergoa (EDER).
- "Camino de Sefarad" Espainiako Judutegien Sarea.

Zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2015ean
Erriberako Mankomunitatea	46.134
Tarazonicaren Bide Berdearen Partzuergoa	14.911
Nafarroako Erribera garatzeko estrategietarako partzuergoa (EDER)	47.576
"Camino de Sefarad" Espainiako Judutegien Sarea.	14.000

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	EEAA	Mankomunitatea	Zerbitzu kontratuak	Errentamendua
Administrazio zerbitzu orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X				
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua	X				
Haur Eskolak 0-3 urte bitartean	X				
Musika eskola	X				
Hirigintza	X				
Lorategiak				X	
Hiri hondakinak			X		
Ur-homidura		X			
Garraio publikoa				X	
Liburutegia	X				
Ludoteka	X				
Kontsumitzailearen arreta zerbitzua	X				
Kaleen eta bideen mantentze-lanak	X				
Kirolak	X				X
Kirol jardueren kudeaketa				X	
Udal Kiroldegia	X				
Babestutako enplegu soziala	X				
Diru-bilketa exekutiboa				X	
Familien Arreta Zentroa	X				
Familien arretarako zentroaren laguntza juridikoa	X				

Entitatearen aurrekontua 2014ko abenduaren 17an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. Halaber, Osoko Bilkura horrek berak betetze-oinarriak onetsi zituen.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, Udalaren 2015eko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta hirugarrenean Udalaren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Azkenik, laugarrenean, gure iritzian eraginik ez duten alderdiei buruzko oharra jaso ditugu (Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta alderdi orokorrak), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun arlokako iruzkin, ondorio eta gomendioak ere.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2015eko ekitaldiko kontu orokorreari buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Jarduketa honen emaitzak Udaleko egungo alkateari azaldu zitzaizkion, bai eta 2015era arte kargu horretan aritutakoari, kasua bada egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez dugu alegaziorik jaso.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Tuterako Udaleko, bere erakunde autonomoko, Castel-Ruiz enpresa-entitate publikoko eta fundazioetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Tuterako Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako hirugarren atalean.

### *UDALAREN ERANTZUKIZUNA*

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontuak halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptzioa, ezarpena eta mantentzea.

2016ko maiatzaren 30eko Osoko Bilkurak onetsi zituen 2015eko kontuak.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolen sistemak ezarri beharko ditu.

### *NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontrolen Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exigitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia eratortzen da, salbuespen bat ere baduena.

## II.1. AUDITORIAREN FINANTZARIOKO IRITZIA

### *IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPEN BATEKIN*

Ez daude erregistratuta funtzionarioen pentsio-sistematik ondorioztatutako betebeharrak aktuarialak. Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago 1993tik ez dela jarduneko langilerik afiliatu sistema horretan. Udalak pentsioengatik konpromisoak buruzko balioespen finantzario-aktuariala egin zuen 2013ko ekitaldian, pasiboak zein aktiboak dagokienez. Konpromiso horiek, lan-hipotesien arabera, 59.464.748 euro egiten zuten, montepioak indarra izanen duen aldirako.

### *IRITZIA*

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen dituzte, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzeko den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

### *AZPIMARRA-LERROKADA*

Arreta deitu nahi dugu Kultur Etxea eraikitzeko 9,9 milioiko maileguaren behar baino lehena-goko itzulketaren eragiketari buruz; izan ere, horretarako 2,7 milioiko mailegu bat eskatu zen eta beste guztia diruzaintzako gerakinen kargura ordaindu zen. Udalaren oroitidazkiaren II. eta III.3 atalean jaso dira horri buruzko iruzkinak.

Ohiz kanpoko eragiketa horrek aurreko ekitaldiekiko alderaketak zailtzen ditu.

Gai horrek ez du gure iritzia aldatzen.

## II.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

**III. UDALAREN 2015eko KONTU OROKORREN LABURPENA**

Ondoren 2015eko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak jasotzen dira (Udala gehi erakunde autonomoa gehi enpresa-entitate publikoa).

**III.1. 2015eko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA****Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoena (%)
1. Langile-gastuak	16.273.912	114.148	16.388.060	15.837.305	97	15.525.756	311.548	2
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	13.118.272	457.006	13.575.278	13.007.050	96	11.354.444	1.652.607	13
3. Finantza-gastuak	549.629	-113.901	435.728	419.004	96	419.001	3	0
4. Transferentzia arruntak	1.904.161	219.403	2.123.564	1.748.431	82	1.476.502	271.930	16
6. Inbertsio errealak	1.484.724	-50.798	1.433.926	1.017.644	71	750.898	266.746	26
7. Kapital-transferentziak	425.000	0	425.000	375.033	88	370.425	4.608	1
8. Finantza-aktiboak								
9. Finantza-pasiboak	2.932.856	9.891.166	12.824.022	12.824.022	100	12.824.022	0	0
<b>Guztira</b>	<b>36.688.553</b>	<b>10.517.025</b>	<b>47.205.578</b>	<b>45.228.490</b>	<b>96</b>	<b>42.721.048</b>	<b>2.507.442</b>	<b>6</b>

**Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobrartzeko dagoena	Kobrartzeko dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	12.574.780	0	12.574.780	12.602.759	100	11.721.379	881.379	7
2. Zeharkako zergak	640.000	0	640.000	801.265	125	758.291	42.974	5
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	8.461.409	126.021	8.587.430	8.992.689	105	7.659.628	1.333.062	15
4. Transferentzia arruntak	12.191.000	199.429	12.390.429	12.008.347	97	11.761.473	246.874	2
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	1.717.635	275.000	1.992.635	2.001.834	100	1.913.494	88.340	4
6. Inbertsio errealak besterentzea								
7. Kapital-transferentziak	1.103.729	25.409	1.129.138					
8. Finantza-aktiboak		9.891.166	9.891.166					
9. Finantza-pasiboak				2.700.000	27	2.700.000		
<b>Guztira</b>	<b>36.688.553</b>	<b>10.517.025</b>	<b>47.205.578</b>	<b>39.106.893</b>	<b>83</b>	<b>36.514.265</b>	<b>2.592.628</b>	<b>7</b>



## III.2. 2015EKO AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2014	2015
+ Aitortutako eskubideak	35.582.841	39.106.893
- Aitortutako betebeharrak	34.934.880	45.228.490
= Aurrekontu-emaitza	647.960	-6.121.597
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	69.567	2.700.000
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	36.656	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	460.749	9.891.166
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak		
= Aurrekontu-emaitza doitua	1.075.798	1.069.570

## III.3. DIRUZAINZA-GERAKINA 2015EKO ABENDUAREN 31N

Kontzeptua	2014	2015
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	3.226.311	3.154.819
(+ Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	2.678.507	2.592.628
(+ Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	3.688.056	4.087.396
(+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	382.293	369.132
(+ Gastuen itzulketak	8.260	12.021
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-399.337	-326.585
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-3.131.468	-3.579.773
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	5.898.765	5.403.523
(+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	2.414.053	2.507.442
(+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.371.289	911.765
(+ Diru-sarreraren aurrekontua	92.269	89.764
(+ Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	384.210	400.211
(+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.674.539	1.533.593
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	-37.595	-39.252
(+) Diruzaintzako funts likidoak	10.583.340	3.657.362
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	0	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	7.910.886	1.408.659
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	12.824.727	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-4.913.842	1.408.659

## III.4. 2015EKO ABENDUAREN 31KO BALANTZE-EGOERA BATERATUA

## Aktiboa

Deskribapena	2014	2015
A. Ibilgetua	122.565.136	120.756.224
1 Ibilgetu materiala	100.122.176	97.862.351
2 Ibilgetu ez-materiala	218.801	215.747
3 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	4.842.344	5.296.311
4 Herri-ondasunak	17.375.324	17.375.324
5 Finantza-ibilgetua	6.491	6.491
C. Zirkulatazaila	17.557.206	10.928.325
7 Izakinak	187.416	182.553
8 Zordunak	6.748.856	7.049.157
9 Oraindik aplikatu gabeko partidak	37.595	39.252
10 Finantza-kontuak	10.583.340	3.657.362
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)		
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>140.122.342</b>	<b>131.684.549</b>

## Pasiboa

Deskribapena	2014	2015
A Funts berekiak	92.760.416	95.993.482
1 Ondarea eta erreserbak	25.332.976	26.439.623
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (galera)	1.168.011	3.318.717
3 Kapitaleko diru-laguntzak	66.259.429	66.235.143
B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	3.131.468	3.579.773
4 Hornidurak	3.131.468	3.579.773
C. Epe luzeko hartzekodunak	36.491.611	26.353.954
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	36.491.611	26.353.954
D Epe laburreko hartzekodunak		5.757.340
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	5.928.100	5.430.755
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzean	1.810.747	326.585
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>140.122.342</b>	<b>131.684.549</b>

## III.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2015EAN

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2015	Deskribapena	2014	2015
3 Hasierako izakinak	171.013	187.416	3 Amaierako erosketak	187.416	182.553
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura			39 Izakinen balio-galtzeen hornidura		
60 Erosketak	73.664	84.736	70 Salmentak	6.052.148	6.140.984
61 Langile-gastuak	13.919.456	13.991.316	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	3.731.651	4.193.383
62 Finantza-gastuak	530.766	419.004	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	10.302.993	10.779.599
63 Tributuak	664	922	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	1.764.537	1.784.044
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	12.675.303	12.811.285	74 Ibilgetuko diru-laguntzen egozpena	85.696	85.651
65 Gizarte prestazioak	2.080.721	1.956.096	75 Ustiapenerako diru-laguntzak		
66 Ustiapenerako diru-laguntzak			76 Transferentzia arruntak	12.457.255	11.996.347
67 Transferentzia arruntak	1.493.047	1.748.431	77 Kapitalaren gaineko zergak	837.741	840.380
68 Kapital-transferentziak	315.459	375.033	78 Bestelako diru-sarrerak	408.710	2.077.661
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak	3.508.266	3.289.984	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	7.985	11.958
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.067.773	3.228.336	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)		
<b>Guztira</b>	<b>35.836.132</b>	<b>38.092.560</b>	<b>Guztira</b>	<b>35.836.132</b>	<b>38.092.560</b>

## Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2014	2015	Deskribapena	2014	2015
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)			80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.067.773	3.228.336
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)			82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	72.067	9.071
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)			83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)		
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)			84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	28.171	81.309
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	1.168.011	3.318.717	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)		
<b>Guztira</b>	<b>1.168.011</b>	<b>3.318.717</b>	<b>Guztira</b>	<b>1.168.011</b>	<b>3.318.717</b>

#### IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Ondoren, azterketa labur bat egiten dugu Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruz eta aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipenari buruz; gainera, kudeaketa-arlo garrantzitsu bakoitzari buruzko iruzkin nagusiak eta, Ganberaren iritziz, Udalak aintzat hartu beharko lituzkeen gomendio nagusiak ere, bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetze aldera.

##### IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2015EKO ABENDUAREN 31N

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 37 milioi euroko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 29 —hau da, 11 milioi euro— handitu da aurrekontu-aldaketen bitartez: Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 47 milioikoak dira. Aldaketa horiek eragina dute batez ere finantza-aktiboen kapituluan (diru-sarrerak) eta finantza-pasiboen kapituluan (gastuak).

Aitortutako betebeharrak 45 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 96ko betetze-maila izan dute.

Aitortutako eskubideek 39 milioi euro egiten dute, eta haien betetze-maila ehuneko 83koa da; halere, mailegua kitatzeko eragiketa kontuan hartuko ez bagenu, portzentajea ehuneko 98koa izanen litzateke.

Beren izaerari erreparatuta, gastuen ehuneko 69 arruntak dira eta ehuneko 28 finantza-eragiketei dagozkie; diru-sarreraren kasuan, berriz, ehuneko 93 diru-sarrera arruntei dagozkie.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	35	Tributu bidezko diru-sarrerak	57
Bestelako gastu arruntak	33	Transferentziak	31
Inbertsioak	3	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	5
Finantza-zama	29	Zorduntzea	7
	100		100

Hona Udalaren 2015erako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2014koarekiko konparazioa:

	2014	2015	Aldea (%) 2015/2014
Aitortutako betebeharrak, guztira	34.934.880	45.228.490	29
Likidatutako eskubideak, guztira	35.582.841	39.106.893	10
Gastuen betetzea (%)	95	96	1
Diru-sarreraren betetzea (%)	96	83	-14
Ordainketak (%)	93	94	1
Kobratutakoa (%)	92	93	1
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	30.775.693	31.011.791	1
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	30.242.855	30.592.786	1
Inbertsioengatiko gastuak (6. eta 7. kapituluak)	667.417	1.392.677	109
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	3.491.771	12.824.022	267
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	35.549.929	36.406.893	2
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	21.373.787	22.396.713	5
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	32.912	0	-100
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	35	31	-12
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	69	72	4
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	4.139.732	4.002.425	-3
Aurrekontu-emaiza doitua	1.075.798	1.069.570	-1
Aurrezki gordina	5.307.075	5.814.107	10
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	4.024.609	13.243.027	229
Aurrezki garbia	1.282.465	-7.428.919	-679
Zorpetze maila (%)	11	36	231
Zorpetze muga (%)	15	16	6
Zorpetze-ahalmena (%)	-4	-20	410
Diruzaintza-gerakina, guztira	7.910.886	1.408.659	-82
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-4.913.842	1.408.659	-129
Zor bizia	35.561.040	25.437.017	-28
Diru-sarrera arruntaren gaineko zor bizia (%)	100	70	-30
Zor bizia biztanleko	1.014	719	-29
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	7	4	-37

2015ean, Udalak ehuneko 29 gehiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 10 handiagoak izan ditu.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko 1eko igoera izan da; eta diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko 2 egin dute gora. Tributu izaerako diru-sarrerak ehuneko 5 igo dira.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioak 4 milioi euro egiten du.

Aurrekontu-emaiza doitua 1,07 milioi eurokoa da.

Jada aipatu dugun bezala, Kultur Etxea eraikitzeko mailegua kitatzeak eragina du aurrezki garbiarekin lotutako adierazleetan eta zorpetze-ahalmenean. Oroitidazkian, aurrekontu-likidaziotik ateratako adierazleez gainera, eragiketa horren eraginak zuzentzen dituzten beste batzuk ere aurkeztu ditugu.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 16koa da, eta ehuneko 6,18ko muga du; horregatik, hain zuzen, ez du zorpetze berri baterako gaitasun ekonomikorik. Datuek nolabaiteko nahastea dute aurrez aipatu dugun amortizazio aurreratuaren ondorioz.

Diruzaintzako guztizko gerakina 1,4 milioikoa da, eta ehuneko 82 egin du behera 2014koarekin alderatuta. Gastu orokorretara bideratutakoak kopuru bera du.

Epe luzeko zorra 25,4 milioikoa da, eta ehuneko 28 egin du behera 2014koarekin alderatuta; zor hori —biztanle bakoitzeko 719 eurokoa dena, guztira— entitatearen diru-sarrerara arrunten guztizkoaren ehuneko 70 da. Bada, ehuneko hori gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen diru-sarrerara arrunten ehuneko 110eko lege-mugaren azpitik dago.

Tuterako Udalak 2006-2015 aldian honako bilakaera izan du diru-sarreretan eta gastuetan:

#### Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
1 Zuzeneko zergak	9.045.491	8.428.646	10.216.912	10.347.341	10.656.364	10.854.322	11.358.934	11.877.842	12.537.530	12.602.759
2 Zeharkako zergak	2.071.829	4.159.294	1.892.383	1.210.524	1.407.143	812.044	841.519	375.161	367.741	801.265
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerara batzuk	8.271.187	8.706.111	8.266.895	8.295.911	8.578.030	8.753.581	9.052.916	8.827.465	8.468.516	8.992.689
4 Transferentzia arruntak	11.675.154	12.505.552	14.060.542	13.475.030	13.946.140	13.023.772	12.192.098	12.159.849	12.479.255	12.008.347
5 Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	2.132.484	1.926.230	2.151.926	1.979.983	1.678.696	1.359.356	1.665.273	1.756.030	1.696.887	2.001.834
6 Inbertsio errealen besterentzea	78.368	629.502	399.530	1.980	2.382.173	333.915	274.619	434.666	69.567	0
7 Kapital-transferentziak	2.650.419	2.924.634	2.617.566	7.452.436	6.651.769	1.160.170	382.615	0	-36.656	0
8 Finantza-aktiboak	0	0	75	0	0	0	0	0	0	0
9 Finantza-pasiboak	230.503	12.000.000	0	11.200.000	12.104.658	0	0	0	0	2.700.000
<b>Guztira</b>	<b>36.155.435</b>	<b>51.279.969</b>	<b>39.605.829</b>	<b>53.963.205</b>	<b>57.404.973</b>	<b>36.297.160</b>	<b>35.767.974</b>	<b>35.431.013</b>	<b>35.582.841</b>	<b>39.106.893</b>

#### Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
1 Langile-gastuak	13.692.505	14.089.723	15.881.086	16.211.412	16.300.731	16.343.899	15.216.656	15.701.978	15.897.742	15.837.305
2 Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	12.617.839	14.270.333	16.014.595	16.782.862	14.359.819	15.298.619	13.119.361	12.236.386	12.852.066	13.007.050
3 Finantza-gastuak	391.564	293.075	513.833	334.667	590.990	677.271	809.022	561.888	532.838	419.004
4 Transferentzia arruntak	2.059.306	1.865.226	1.970.854	2.485.303	3.235.794	1.945.330	1.324.326	1.445.409	1.493.047	1.748.431
6 Inbertsio errealak	6.842.171	12.331.140	10.440.559	14.782.090	10.021.835	4.102.892	1.844.117	801.767	351.958	1.017.644
7 Kapital-transferentziak	172.934	311.864	222.557	437.797	113.485	115.221	86.168	345.139	315.459	375.033
8 Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
9 Finantza-pasiboak	1.333.827	1.259.165	1.184.685	1.184.651	1.192.731	1.820.165	1.764.475	2.446.751	3.491.771	12.824.022
<b>Guztira</b>	<b>37.110.146</b>	<b>44.420.526</b>	<b>46.228.169</b>	<b>52.218.782</b>	<b>45.815.385</b>	<b>40.303.397</b>	<b>34.164.125</b>	<b>33.539.318</b>	<b>34.934.880</b>	<b>45.228.490</b>

Taulako datuetatik ondorioztatzen denaren arabera, zuzeneko zergek modu jarraituan egin dute gora, zeharkakoek (EIOZa), berriz, behera egin dutela, salbu eta 2015eko ekitaldian, non 2011ko mailetara itzuli baitira, eta kapital-transferentziek, azkenik, behera egin dutela. Nabarmendu beharra dago 2011tik ez dela finantza-pasiboengatik diru-sarrerarik izan aurtengo ekitaldira arte, non halakoak izan baitira 2008-2010 ekitaldietan egindako inbertsioak finantzatzeko 2,7 milioiko mailegu bat kontratatzearen ondorioz.

Gastuei dagokienez, 2009ra arte igoera bat gertatu da, eta gero nabarmentzeko moduko beherakada bat gertatu da. Hartara, 2014ko gastua 2006koa baino txikiagoa da. Ikusten da 2009tik aurrera gastu arruntari eutsi egin zaiola eta inbertsioak asko murriztu direla. 2015eko gastua 45 milioikoa izateraino handitu da, aipatutako zorraren amortizazioaren ondorioz. Halaber, inbertsioetan gastu handiagoa egin da, nahiz eta oraindik ere 2012a baino lehenagoko mailetatik behera dagoen.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da (ikus oroitidazkia) 2011tik 2015era.

Adierazlea	2011	2015	Aldea (%), 2015/2011
Zorpetze-ahalmena	% -3,7	% -20,41	% 452
Inbertsio indizea	% 10,5	% 2,25	% -79
Gastu arrunta biztanleko	972 €	876 €	% -10
Tributu diru-sarrerak biztanleko	579 €	633 €	% 9

Ikus daitekeen bezala, 2011tik 2015era inbertsioak gutxitu dira eta gastu arruntak murriztu dira. Aldi berean, tributu bidezko diru-sarrek gora egin dute eta, behera egin du, berriz, zorpetze-ahalmena, zeina aurten egindako eragiketek baldintzatu baitute. Amortizazio-eragiketa kontuan hartuko ez bagenu, zorpetze-ahalmena positiboa izanen litzateke, ehuneko zazpi ingurukoa (ikus eranskinean Udalaren oroitidazkiaren datuak)

#### IV.2 AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren bete-tzea aztertu dugu, haren hiru atal nagusiei dagokienez:

Aurrekontu-egonkortasunaren araua: emaitza positiboa da, ondoren adierazten dugun bezala:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	4.002.425
Doikuntzak	-478.227
Finantzatzeko ahalmena	3.524.198

Gastuaren araua: 2015eko ekitaldiko gastu zenbakarria txikiagoa da 2014ko ekitaldiko baina, eta hari baimendutako aldearen tasa gehitu behar zaio, 22.157 eurokoa; horrenbestez, bete egiten da gastuaren araua:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2014	Aitortutako betebeharrak, 2015
Gastu ez-finantzarioa, guztira	30.850.610	31.229.510
Baimendutako aldearen tasa	% 1,30	
2015eko gastu zenbakarria	31.251.668	

Finantza-iraunkortasunaren araua: 2015eko abenduaren 31ko zor bizia 25.437.017 eurokoa da. Zenbateko horrek 2015eko ekitaldiko diru-sarrera arrunten ehuneko 70 egiten du. Diru-sarrera horiek 36.406.893 eurokoak izan dira, eta zor biziaren muga, berriz, diru-sarrera arrunten ehuneko 110ekoa da.

Halaber, Udalak, oro har, betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak.

#### IV.3 AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO AHOLKUAK BETETZEA.

Oro har, aplikatzen ari dira Kontuen Ganberak azken txostenetan emandako gomendioak. Txostenean zehar aipatu ditugu oraindik ere ezarri ez direnak edo egindako lanaren ondorioz sortu diren gomendio berriak.

#### IV.4. ALDERDI OROKORRAK

- Ez da aurkitu 2015eko fakturen zenbateko garrantzitsurik 2016ko aurrekontuari egotzi zaiotarik.
- Oro har, Udalak betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak. Epe horiek gainditzen dituzten kasuak gertatzen dira prozedura judizialean dauden gaien ondorioz.
- Udala eta haren erakunde autonomoa zenbait prozedura judizialean sarturik daude. Ez dugu haren ondorio ekonomikoek Kontu Orokorretan eragin ekonomiko esanguratsurik izanen duten. Udalak emandako informazioaren arabera, 2016ko ekainaren 22an hainbat instantziaren aurreko errekurtsio-kopurua 21 zen.

*Fundazioen finantzaketari eta emaitzei dagokienez —ikus 1. atala—, gomendatzen dugu honako hauek aztertzea:*

- Aukeratutakoa ote den biderik egokiena eskaintzen diren zerbitzuak emateko.*
- Kontuan hartu behar ote diren aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari begira.*
- Entitate horiei aplikatu behar ote zaien Toki Araubidearen Oinarri buruzko 7/1985 Legeko bederatzigarren xedapen gehigarria, 27/2013 Legearen bitartez sartutakoa, finantza-desorekako egoeran dauden entitateei buruzkoa.*

#### IV.5. LANGILEAK

Langileen gastua 15,83 milioi eurokoa da; hau da, 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko 35 eta gastu arrunten ehuneko 51.

2014ko ekitaldiaren aldean, aitortutako betebeharrak gutxi egin dute behera; hona hemen xehetasunak:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2014	2015	
Goi-karguak	155.496	118.333	-24
Kabineteetako behin-behineko langileak	181.495	182.907	1
Funtzionarioak	7.041.906	6.875.560	-2
Lan-kontratadun langileak	3.451.609	3.716.375	8
Bestelako langileak	0	0	-
Gizarte-zamak	5.067.236	4.944.130	-2
<b>1. kapitulua, guztira</b>	<b>15.897.742</b>	<b>15.837.305</b>	<b>0</b>

Udalaren Osoko Bilkurak 2014ko abenduan eman zion hasierako onespina 2015eko plantilla organikoari. Udalaren 2015eko martxoaren 31ko Osoko Bilkuraren erabakiaz eman zitzaion behin betiko onespina, eta apirilaren 30eko NAO n argitaratu zen (2015eko ekainaren 16an akats zuzenketa ba argitaratu zen NAO n).



Udalaren Osoko Bilkurak 2015eko plantilla organikoan onetsi zuen, 347 lanposturekin; horietatik 114 lanpostu bete gabe daude. Honela daude banatuta lanpostu horiek:

	Lanpostu-kopurua	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
<b>Udala</b>				
Funtzionarioak	275	188	87	59
Lan-kontratudun finkoak	32	20	12	10
Behin-behinekoak	4	4	-	-
<b>Uren Batzarra</b>				
Funtzionarioak	26	15	11	5
Lan-kontratudun finkoak	1	1	-	-
Behin-behinekoak	1	-	1	-
<b>Castel-Ruiz Enpresa-entitate Publikoa</b>				
Funtzionarioak	4	4	-	-
Lan-kontratudun finkoak	3	0	3	3
Behin-behinekoak	1	1	-	-
<b>Guztira</b>	<b>347</b>	<b>233</b>	<b>114</b>	<b>77</b>

Gainera, nabarmendu beharra dago, aldi baterako 5 langile badaudela, plantillan aurreikusi gabeko lanpostuak betetzen dituztenak.

2015eko abenduaren 31n, 331 lagunek lan egiten dute, guztira, Udalean, erakundea autonomoan eta Castel-Ruizen, eta era honetara banatuta daude:

Langileak	Udala	Uren Batzarra	Castel-Ruiz	Guztira
Udaleko batzarkideak	5	1	1	7
Aldi baterako langileak - Izendapen askea	4	1	1	6
Funtzionarioak	188	15	4	207
Lan-kontratudun finkoak	20	1	1	22
Aldi baterako lan-kontratudunak	82	5	2	89
<b>Guztira</b>	<b>299</b>	<b>23</b>	<b>9</b>	<b>331</b>

Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Kabinetea	4
Idazkaritza Nagusia	3
Kontu-hartzaitza	5
Agiritegia	4
Aholkularitza juridikoa	2
Udaltzaingoa	60
Antolaketa, kalitatea eta herritarren arreta	11
Langileak	7
IKTak	3
Sustapena eta berrikuntza	7
Ogasuna	18
Kirolak, hezkuntza, gazteria eta gizarte etxeak, gizarte gaiak eta emakumea	124
Lurraldearen antolamendua	24
Musika-eskola	27
<b>Guztira</b>	<b>299</b>

Langileen arloan, gainerako arloetatik nominak egiteko behar den informazioa jasotzen da. Hala eta guztiz ere, azterketa kontabilitate-arloan dauden datuetatik abiatuta egin dugu, zeren eta langileen arloan ez baitira gordetzen kontabilitatearekiko koadratzeak egiaztatzeke behar diren euskarriak.

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta harreman-kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla. Egiaztatu dugu, halaber, 2015eko ekitaldian ez dela izan langileen eta zinegotzien soldata-igoerarik.

Egiaztatu dugu ezen, aurreko ekitaldian emandako gomendioen ondoren, gaurkotu egin direla iraugita zeuden aldi baterako kontratazioetarako zenbait zerrenda.

Hona gure gomendioak:

- *Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeke eta aldi baterako kontratazio-etarako gainerako zerrendak gaurkotzeko.*

- *Langileen arlorako kudeaketa-sistemak aztertu eta osatzea, bereziki prozedurei eta gorde beharreko dokumentazioari, aparteko orduei eta gainerako arloekiko koordinazioari dagokienez.*

#### IV.6. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 13 milioi euro egin dute 2015eko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 29 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 42 egiten dute.

2014ko ekitaldikoekin alderatuta, gora egin dute. Hona hemen xehetasunak:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2014	2015	
Errentamenduak	103.536	91.597	-11
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	3.429.829	3.621.182	6
Materiala, hornidurak eta beste	9.145.017	9.129.966	
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	152.561	136.352	-11
Argitalpen-gastuak	21.123	27.954	32
<b>Guztira</b>	<b>12.852.066</b>	<b>13.007.050</b>	<b>1</b>

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditante hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Kontratu mota	Prozedura esleipena	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Etxerik gabeko pertsonak	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti eskaintza onerentzat	82.645	3	73.900
Monte de Cierzoko eta Valdetellasko ureztalurretan zuntz-zementuzko hodietan gerta daitezkeen matxurak konpontzea.	Laguntza	Publizaterik gabeko prozedura negoziatua eskaintza onerentzat	30.000	2	23.350
SAN metatze-sistemaren eta birtualizazioaren ingurune baterako hornidura eta haren ezarpena eta mantentzea.	Hornidura	Publizaterik gabeko prozedura negoziatua eskaintza onerentzat	52.959	2	51.850

Aurreko berrikuspenarekin eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bat aztertuta, egiaztatu da gastuak fakturekin eta ziurtagiriekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den kontratuei buruzko araudia arrazoiz errespetatu dela, bai eta kontratuen indarraldiak zuzenak direla ere; salbuespen bakarra da 2015ean zerbitzu batzuk lizitaziora atera behar zirela.

*Gomendatzen dugu kontratuen lizitazio berriak prestatzea aurrekoen muga-egunak kontuan hartuta.*

#### IV.7. FINANTZA-ZAMA

Finantza-zamaren gastuek (interesak gehi zorraren amortizazioa) 13,24 milioi egin dute, eta 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko 29 dira. Aurreko urtearekiko igoera ezin da parekatu, zeren eta haren jatorria arestian aipatutako eragiketa baita, Kultur Etxea eraikitzeko mailegua kitatzekoa.

Hona horien xehekako azalpena:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2014	2015	
Maileguen interesak	532.838	419.004	-21
Maileguen amortizazioa	3.491.771	12.824.022	267

Honakoa da epe luzeko zorraren amortizazioen egutegia —gehienetan, hitzartutako maileguak 20 urteko eperako izan dira—:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2016	2.582.071	10	10
2017-2021	10.360.642	41	51
2022-2026	7.704.381	30	81
2027-2031	4.789.924	19	100
Guztira	25.437.018	100	

## IV.8. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hori duten gastuek 2,12 milioikoak izan dira: 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko 4,69, transferentzia arrunten ehuneko 3,87 eta kapital-transferentzien ehuneko 0,83 egiten dute.

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2014	2015	
Toki entitateei	45.294	46.134	2
Enpresa pribatuei	143.318	172.643	20
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	1.304.434	1.529.654	17
4. Transferentzia arruntak	1.493.046	1.748.431	17
Toki entitateei	-	-	-
Enpresa pribatuei	225.000	225.000	0
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	90.459	150.033	66
7. Kapital-transferentziak	315.459	375.033	19

2014. urtearen aldean, gastu horiek ehuneko 17 igo dira.

Honakoak dira 2015ean emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Onuraduna	Zenbatekoa
Castel-Ruiz	1.090.000
Etxez etxeko laguntzarako laguntzak	345.909
Gizarte arretaren arloko beste laguntza batzuk	244.326
Informazioaren Gizarterako Dédalo Fundazioa	115.000

Abenduaren 29ko Nafarroako Aldizkari Ofizialak jasotzen du Tuterako Udalak 2015eko azaroan onetsi zuela diru-laguntzen plan estrategikoa.

Egiaztatu da Kontu-hartzaitzaren arloak egiten duen barne-kontrolak zuzen funtzionatzen duela Tokiko Gobernu Batzarrak emandako diru-laguntzen ordainketak egiteko orduan.

*Gomendatzen dugu Zaharkituta geratu diren ordenantzak berrikusi edo gaurkotzea.*

## IV.9. INBERTSIOAK

2015. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (1,43 milioi) ehuneko 71 bete da, eta milioi bat euroko kopurura iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko bi.

2014arekin alderatuta, ehuneko 189 egin du gora, honako xehetasunena arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2014	2015	
Erabilera orokorrerako inbertsio berria	16.142	453.966	2.712
Zerbitzuen funtzionamendurako inbertsio berria	139.148	223.798	61
Inbertsio ez-materialak		37.917	
Ondarezko ondasunetan eginiko inbertsioa	46.112	301.963	555
Herri ondasunetan egindako inbertsioa	150.556		
<b>Guztira</b>	<b>351.958</b>	<b>1.017.644</b>	<b>189</b>

Taulan ikus daiteke nolako bilakaera izan duen azken urteetan inbertsioen betetzearen ehunekoak.

Ekitaldia	Inbertsioak betetzearen ehunekoa
2005	26
2006	15
2007	24
2008	25
2009	34
2010	28
2011	22
2012	49
2013	51
2014	32
2015	71

Kontuen Ganbera honek behin eta berriro gomendatu izan du txostenetan aurrekontuko inbertsioetarako zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealen arabera doitu behar direla. Egiaztatu dugu 2015ean aurrekontua koherentea izan dela egindako gastuarekin.

Honakoak dira 2015ean egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	Zenbatekoa
San Nikolas eliza zaharberritzea	299.763
Corellako errepidearen biribilgunea	483.695

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hau berrikusi da (zenbatekoak BEZa barne):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Corellako errepidearen biribilgunea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera eskaintza onenarentzat	639.268	11	468.328

Egindako azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia — alderdi nagusietan—, bai kontratazio-espeditentea izapidetzean, bai hura esleitzean eta betetzean ere, eta kontabilizatutako gastuak arrazoizkoak direla.

## IV.10. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2015eko ekitaldian aitortutako eskubideak 39,11 milioikoak izan dira; ehuneko 93 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkie eta ehuneko 7, berriz, kapital-eragiketei.

Eragiketa arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (22 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (12 milioi eurokoak) nabarmentzen dira, aurreko ekitaldian bezala.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 83koa izan da.

2014. urtearekin alderatuta, aitorturiko eskubideek ehuneko 10 egin dute gora. Honako hau da haien xehakatzeara:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%)
	2014	2015	2015/2014
1. Zuzeneko zergak	12.537.530	12.602.759	1
2. Zeharkako zergak	367.741	801.265	118
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	8.468.516	8.992.689	6
4. Transferentzia arruntak	12.479.255	12.008.347	-4
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	1.696.887	2.001.834	18
<b>Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)</b>	<b>35.549.929</b>	<b>36.406.893</b>	<b>2</b>
6. Inbertsioen besterentzea	69.567	0	-100
7. Kapital-transferentziak	-36.656	0	-100
8. Finantza-aktiboak	-	0	-
9. Finantza-pasiboak	-	2.700.000	-
<b>Kapital-sarrerak eta finantza-eragiketenak (6. kapitulutik 9.era)</b>	<b>32.912</b>	<b>2.700.000</b>	<b>8104</b>
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>35.582.841</b>	<b>39.106.893</b>	<b>10</b>

Zuzeneko zergen, tasen eta transferentzia arrunten bitartez lortutako diru-sarrerak nabarmentzen dira. 2014arekin alderatuta, nabarmentzekoa da zeharkako zergek gora egin dutela, eta diru-sarrera arruntek ere ehuneko 2 egin dutela gora. Aitortutako eskubideen igoera orokorra gertatu da 2,7 milioiko mailegu bat kontratatatu delako.

Hurrengo taulan udal zerga bakoitzeko aitortu diren eskubideen bilakaera erakusten dugu:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%)
	2014	2015	2015/2014
Lurraren kontribuzioa	8.307.614	8.282.946	0
Ibilgailuak	1.764.449	1.783.956	1
Lurren balio-gehikuntza	837.741	840.380	0
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1.627.638	1.695.388	4
Luxu-zergak	88	88	0
EIOZa	367.741	801.265	118
<b>Guztira</b>	<b>12.905.271</b>	<b>13.404.024</b>	<b>4</b>

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,389	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,32-1,40	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,4-2,9	2tik 3,8ra
Zerga-tasa	11,2	8 - 20 bitartean
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4	2 - 5

Diru-sarrereren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

#### IV.11. HIRIGINTZA

Tuterako Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra izeneko organo baten bitartez; organo horretan diharduten pertsonak hauek dira: arkitekto bat, legegari bat, arkitekto tekniko bat, bost administrari eta obren zaindari bat.

Udalak ez du kanpoko hirigintza-aholkularitza iraunkorrik. Hala eta guztiz ere, obra-zuzendaritzako lanak eta proiektuetako oroitidazkiak idazteko lanak beti kanpoko profesionalak egiten dituzte.

Tuterako Udalaren Lurraldearen Antolamenduari buruzko Plana 1991n onetsi zen, eta 1996an haren eguneratze bat onetsi zen.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

Udalak abiatu ditu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko izapideak. 2006an esleitu zen Hiri Antolamendurako Plana taxutzea, Lurralde eta Hirigintza Antolamenduaren Foru Legeari egokitze aldea. "Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Eredua" izeneko dokumentuari 2007an eman zitzaion hasierako onespina. Gaur egun, Nafarroako Gobernuarekin Aurretiko Hitzarmena egitearen zain dago, 35/2002 Foru Legean ezarritakoaren arabera; izan ere, oroitidazkiak zehazten duenaren arabera, abiadura handiko linearen ibilbidea behin betiko zehaztearen menpe dago.

Trenbidearen trazadurak herrian daukan eragina ulertzen dugun arren, ezin dugu ahaztu denbora luzea joan dela hiri antolamenduko plan bat egiteko izapideak hasi zirenetik.

Udalak ez du hirigintza-hitzarmenen erregistrorik, ez eta Udalaren lurzoru-ondarearen inbentario eta erregistro espezifikorik ere; hala ere, ondare horretatik datozen diru-sarrera atxikien jarraipena egiten da.

Udalak aurkeztutako oroitidazkian, ekitaldian zehar gauzatutako hirigintza-jarduerak zehazten dira.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzea.*
- *Hirigintzako hitzarmenen erregistroa eta artxiboa ezartzea, indarrean den legediak eskatzen duen dokumentazioarekin.*
- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Sinadura elektronikoa: Asunción Olaechea Estanga,  
Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria

